

Maiatzaren 17a. Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna.

17 de mayo. Día Internacional contra la Homofobia, la Transfobia y la Bifobia.

2026ko maiatzaren 17an ospatuko dan Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dala-eta prestatutako **agiria** bidaltzen deusuegu Bizkaiko Elizaren Alkarteen Kontseilutik.

LGTBfobiaren aurkako burruka gizon-emakumeen duintasunaren aldeko kristau konpromisoaren barruan dago. Hori dala eta, maiatzaren 17an, domekaz, LGTBfobiarik bako mundu baten alde eskatuz, eukaristia ospakizunetan, otoitz egitera konbidatzen zaituegu.

Komunitate zabal, abegitsu eta solidarioak eratzen jarraitu gura dogu, aniztasuna aberastasun eta doe lez autortuko daberen eta pertsona guztiei bizimodu duina, errespetua eta bardintasuna ahalbidetuko deusien komunitateak.

Desde el Consejo de Comunidades de la Iglesia de Bizkaia os enviamos el siguiente **documento** con motivo del Día Internacional contra la Homofobia, la Transfobia y la Bifobia que se celebra el 17 de mayo 2026.

La lucha contra la LGTBfobia forma parte también del compromiso cristiano con la dignidad de las personas. Por ello os invitamos a uniros en oración en las celebraciones eucarísticas del domingo 17 de mayo pidiendo por un mundo sin LGTBfobia.

Queremos seguir tejiendo comunidades abiertas, acogedoras y solidarias, donde la diversidad sea reconocida como una riqueza y un don y todas las personas puedan vivir con dignidad, respeto e igualdad.

Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. 2026ko maiatzaren 17a.

Bizkaiko Elizaren Alkarteen Kontseilua.

Maiatzaren 17a, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, oroimenerako, hausnarketarako eta, batez ere, gure komunitateen ekintza arduraturako deia da. Gaur egun, jende askok diskriminazio, arbuio eta indarkeria egoerak jasaten ditu bere genero identitate edo adierazpenagaitik, horregatik, jardunaldi honek egoera horretaz jabetzen laguntzen digu. Munduko toki askotan LGTBI izatea oraindik espetxearekin eta baita heriotzarekin ere zigortzen dela gogoratzen dugu ere. Memoria beharrezkoa da gizarte bidezkoagoak eraikitzeko, iraganeko eta orainaldiko bidegabekeriak aitortu gabe nekez lortuko baitugu berriz ez gertatzea.

LGTBfobiaren aurkako borroka kristauak pertsona ororen duintasunarekin duen konpromisoaren parte ere bada. Eliza gisa, uste dugu, gizaki bakoitza duintasun bortxaezinaren eramailea dela, eta aniztasuna, elkartzera eta anaitasunera gonbidatzen gaituen aberastasuna dela. LGTbFobiaren aurkako borroka, erakundeen eta gizarte osoaren aldetik, erabaki zehatzak eta benetako konpromisoak eskatzen ditu.

LGTBfobia desagerraraztea ez da soilik asmo etiko bat, baizik eta gure egitura sozial, politiko eta erlijiosoei, eta baita gure jarrera eta jokabideei eragiten dien erantzukizuna da. Ez da nahikoa LGTbFobia, gorrotoa, eta horiekin batera agertzen eta hedatzen diren alderdi negatibo eta kontraesankorrak baztertzea. Gure aurreiritziak berrikusteko deia dugu; edozein diskriminazio mota salatu; eta errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatu.

Dei berezi bat egiten diegu nazioen gidaritzan erantzukizuna, eta komunikabideetan eta sare sozialetan, eragina dutenei, beti egiari ohore egiteko eta gorrotoa, liskarra, arbuioa, marjinazioa, indarkeria eta LGTbFobia sustatzen dituen inolako mezurik ez sortzeko eta zabaltzeko.

Kristau-elkarteei deia luzatzen diegu ondorengo gaietan gure konpromisoa berronetsi eta berresteko. Egoera horiek pairatzen dituztenekin batera egotea; haiei entzutea, beraien ekarpenak aitortzea, eta haiekin batera lan egitea gizarte inklusiboagoa, anaikorra, baketsuagoa eta bakegilea eraikitzeko baizik. Bat egitea bultzatzea, berezko guneak sortuz, diskriminazioa salatuz, inor baztertzen ez den komunitateak indartuz. Komunitate abegikorrek eraikitzen jarraitzea, non pertsona bakoitza onartua, baloratua, maitatua, eta giza familia beraren parte sentitu dadin. Harrera, laguntza eta integrazioa pertsona desberdinen arteko elkarlanetik eta topaketatik baino ezin dira gauzatu; denak, berdinak dira beren oinarrian eta izaeran.

Maiatzaren 17 honetan bizikidetzarekin, justiziarekin eta anaitasun unibertsalarekin dugun ahalegina berrituko dugu. Giza eskubideak defendatzeko konpromisoa hartzen dug: ,bizitzeko eskubidea, askatasunerako eskubidea eta segurtasunerako eskubidea. Komunitate irekiak, abegikorrek eta solidarioak sortzen jarraitu nahi dugu, non aniztasuna aberastasun eta dohain gisa aitortua izango den, eta pertsona guztiak duintasunez, errespetuz eta berdintasunez bizi ahal izango diren.

Día Internacional contra la Homofobia, la Transfobia y la Bifobia. 17 de mayo de 2026.

Consejo de Comunidades de la Iglesia de Bizkaia.

El 17 de mayo, Día Internacional contra la Homofobia, la Transfobia y la Bifobia, es una llamada a la memoria, a la reflexión y, sobre todo, a la acción comprometida de nuestras comunidades. Esta jornada nos invita a tomar conciencia de las situaciones de discriminación, rechazo y violencia que todavía sufren muchas personas por su orientación sexual o por su identidad o expresión de género, y nos recuerda que en muchos países ser LGTBI sigue estando penado con prisión, e incluso con la muerte. La memoria es necesaria para construir sociedades más justas, porque sin reconocer las injusticias del pasado y del presente, difícilmente podremos evitar que vuelvan a repetirse.

La lucha contra la LGTBIfobia forma parte también del compromiso cristiano con la dignidad de toda persona. Como Iglesia, creemos que cada ser humano es portador de una dignidad inviolable y que la diversidad es una riqueza que nos invita al encuentro y a la fraternidad. La lucha contra la LGTBIfobia requiere decisiones concretas y compromisos reales por parte de las instituciones y de toda la sociedad.

Erradicar la LGTBIfobia no es solo una aspiración ética, sino una responsabilidad que interpela a nuestras estructuras sociales, políticas, religiosas, y también a nuestras propias actitudes y conductas. No basta con rechazar la LGTBIfobia, el odio y todo lo negativo y contradictorio que los acompañan cuando aparecen y se extienden de forma evidente. Recibimos la llamada a revisar nuestros prejuicios; a denunciar cualquier forma de discriminación y a promover relaciones basadas en el respeto y la igualdad.

Dirigimos un llamamiento particular a quienes tienen responsabilidad en el gobierno de las naciones e influencia en los medios de comunicación y redes sociales, para hacer siempre honor a la verdad y no generar y divulgar ningún tipo de mensaje que aliente el odio, el enfrentamiento, el rechazo, la marginación, la discriminación, la violencia y la LGTBIfobia.

Hacemos un llamamiento a las comunidades cristianas para reafirmar nuestro compromiso por caminar junto a quienes sufren estas situaciones, escucharlas, reconocer sus aportaciones y trabajar con ellas en la construcción de una sociedad más inclusiva, fraterna, pacífica y pacificadora. Impulsar el encuentro, creando espacios propios, denunciando la discriminación, fortaleciendo comunidades donde ninguna persona sea excluida. Seguir construyendo comunidades acogedoras, donde cada persona pueda sentirse reconocida, valorada, amada, y parte de una misma familia humana. La acogida, el acompañamiento y la integración son caminos que solo pueden recorrerse desde la colaboración y el encuentro entre personas diferentes pero iguales en su esencia y en su ser.

En este 17 de mayo renovamos nuestro empeño con la convivencia, la justicia y la fraternidad universal. Nos comprometemos en la defensa de los derechos humanos: el derecho a la vida, el derecho a la libertad y el derecho a la seguridad. Queremos seguir tejiendo comunidades abiertas, acogedoras y solidarias, donde la diversidad sea reconocida como una riqueza y un don y todas las personas puedan vivir con dignidad, respeto e igualdad.